

1. KANALAK:

Esan daiteke gure enpresa, berez, kanal bat dela, bitartekari lana egiten baitugu. Baina beste kanal batzuk ere erabiltzen ditugu.

Baliabide zuzen bat bezeroak lortzeko, gaur egun hain modan dauden “influncerrak” izango lirateke, hau da, sare sozialetan edukia igo eta jarraitzaileak dituen jendea. Hauek jendearengan eragina dute, eta beraz, gure enpresaren propaganda egingo lukete, gure enpresa ezagutzera eramanez. Pertsona hauek egin beharko luketen bakarrik enpresak egiten duena azaldu eta proiektua goraipatzea izango litzateke. “Iragarki” hauek jendearen arreta deituko lukete eta beraz gure enpresarako bezeroak lortuko genituzke.

Hasteko, kontuan hartu behar dena da “influencer” guztiak ez direla aproposak, hau da, batzuek ez dutela gure enpresarekin zerikusirik eta ez digutela balio. Beraz, aukeratuko ditugunak normalean haien sare sozialetan modari buruz hitz egiten dutenak eta arropa erakusten dutenak izango dira. Hain zuzen ere, euren ohiko edukiak arroparen ingurukoak badira, haien jarraitzaileek gai honekiko interesa dute, eta ondorioz, etorkizunean gure bezero izan ahalko lirateke.

Gure enpresako kanal propioa internet bidezko salmenta izango da, webgune bat zehazki. Bertan eskegiko ditugu salgai dauden produktuak eta haien prezioa eta informazio gehigarria (produktuaren egoera, neurriak...).

Webgunean bertan harpidetu beharko dira arropa saldu nahi dutenak, eta behin izena emanda, erosotasunez jantzien argazkiak eta deskripzio txiki bat bidaliko dizkigute. Bezeroek ez dute zertan harpidetu behar; behin erabakita zein produktu erosi nahi duten, momentuan bertan jarriko dituzte haien datuak eta hauek ez dira inon erregistratuta geratuko, segurtasun neurriak direla eta. Nahi izatekotan, bezeroek izena ere eman dezakete webgunean, erosketa bakoitza egiterakoan berriz datuak sartu behar ez izateko, baina orduan haien datuak gordeta izango ditugula onartu beharko dute.



Esan bezala, gure enpresa ezagutarazteko beste pertsona ezagunen “fama” erabiliko dugu, gure instagramaren bitarteko publizitatea erabiltzeaz aparte.